

Paraguaiko Behe Ganberak presidentea auzipetzeko eskatuko dio Senatuari

Diputatuek mozio bat onartu dute Cubas zereginak ez betetzeagatik epaitzeko

Agentziak / Asuncion

Raul Cubas presidenteari epaiketa politikoa egitearen alde azaldu da Paraguaiko Diputatuen Ganbera, lehendakariak dagozkion zereginak

eta beste karguak behar bezala ez dituela egiten arrazoituta. Orain, Behe Ganberak Cubas auzipetzeko eskatuko dio Goi Ganberari, Senatuari. Paraguaik egoera zaila du, batik bat jantzi militarrekiko hiru

pertsonek herenegun lehendakariordea tiroz hil eta gero. Oposizio alderdien jarraitzaileak kalera irten dira hilketaren errua presidenteari leporatzeko, eta istiluak gertatu dira polizien eta manifestarien artean.


DIPUTATUEN GANBERAK bi aste barru egin behar zuen bozketa Raul Cubas Paraguaiko presidenteari epaiketa politikoa egin edo ez erabakitzeko, baina legebiltzarkideek aurreratu egin zuten bozketa, Paraguaik duen egoera larria ikusita.

73 legebiltzarkide zeuden bozketa egin zen unean: haietatik 49k epaiketa politikoa alde egin zuten, eta 24k aurka.

Orain Goi Ganberak du azken hitza. Diputatuen Ganberak Cubas auzipetzeko eskatuko dio Senatuari, dagozkion zereginak eta bestelako karguak behar bezala ez dituelako egiten. Diputatuen herenek eman behar zuten baietza mozioa Senatura eramateko, eta hor 45 senadoreetako 30ek onartu beharko dute Cubas auzipe-tu ahal izateko.

Oposizio alderdi nagusi-ko buruak, Alderdi Liberal Erradikal Benetako buruzagi Blas Llanok, esan zuen Senatuak egin behar duela gainontzeko lana: «Jainkoak nahiko ahal du Raul Cubas lehendakari kargutik kentzea eta baketze nazionalako prozesua abiaraztea».

Oposizio alderdi bigarren alderdia, Topaketa Nazionalako Alderdi, berriz, ziur dago Goi Ganberak lehendakari kargutik kenduko duela Cubas.



LORENZO BARRIOS / AP

Manifestari batzuk korrika, poliziengandik ihesi, Asuncionen izandako istiluetan.

Diputatuen Ganberak bozketa egin zuenean, eraikineko atarian istilua gertatu zen manifestari batzuen eta Conrado Pappalardo diputatuaren artean. Colorado Alderdi-ko diputatu eta Lino Cesar Oviedo jeneral kolpista ohia- ren aldekoa da Pappalardo, eta, eraikinerara sartu aurretik, manifestariak atzetik segitu zioten eta kolpatu egin zuten.

Istilua Poliziaren eta manifestarien artean

Istilu gehiago ere gertatu zen Asuncion hiriburuan. Oposizio alderdien jarraitzaileak kalera irten ziren Luis Maria Argaña lehendakariordearen hilketari salatzen. Argaña tiroz hil zuten herenegun jantzi militarrekiko hiru pertsonak, eta bai oposizioak bai Colorado Alderdi-ko Coloradoren Adis-

kidetze Mugimenduak Cubasi leporatu zioten hilketari.

Poliziak eta manifestariak elkarren aurka aritu ziren kaleetan. Polizia manifestari-riei oldartu zitzaion, eta gas negarreragileak eta ur txorroak jaurti. Zauritu ugari izan zen liskarretan. Langile eta nekazari sindikatuek, bestalde, mugagabeko greba hasi dute, demokrazia berriro ezartzeko exijitzeko.

Giroa asko baretu da Indonesiako Borneo uhartean

■ *Heldu dira jada Gobernuak bidalitako errefortzuko tropak*

Agentziak / Jakarta

INDONESIAKO Gobernuak bidalitako errefortzu militarrek iristearekin batera, aurreko egunetako gatazka egoera baretu egin zen atzo Borneo uhartean, Mendebaldeko Kalimantanen, Madura inguruan. Komandantzia militarrek emandako datuen arabera, inguru horretako jatorrizko biztanleek azken orduetan ez dute erasorik egin etorki- nen aurka. Hala ere, denda eta bulego publiko gehienak itxita zeuden atzo ere.

Joan den asteko astear- tean piztu ziren bertakoen eta etorkinen arteko borrokak, autobus txartel baten inguruko eztabaida baten ondotik, malay eta dalay etnietako jendea Madura uhartetik joanda- ko kolonoei erasotzen hasi baitzen. Liskar horien ondorioz, 165 pertsona hil dira eta 13.000 lagunek alde egin dute etxetik, bel- durtuta. Pertsona horiek eraikin publikoetan, kirol zelaietan eta kuarteletan aterpetu dituzte. Halaber, 12.000 lagun —Maduratik heldutako etorkinak guz- tiak— Singkawang he- rrian daude gordeta, Armadak handik noiz ate- rako zain.

Maduratik iritsitako kolonoak Mendebaldeko Kalimatango biztanleen % 2 dira, eta Suharto lehendakari ohiak bultza- tutako barne migrazioa- ren ondorioz heldu ziren hara. Orain arte ez da arazo handirik izan.


laburrean

A F R I K A

■ **Mendebaldeko Afrikako Atzerri ministroak arma politika ari dira eztabaidatzen**
ARMEN ugaritzea da Mende- baldeko Afrikako Estatuen Komunitate Ekonomikoa (MAEKE) egiten ari den batzarraren ardatza. Hain zuzen ere, elkarte horretako Atzerri ministroak Barmakon daude bilduta, Maliko hiribu- ruan. Afrikako eskualde horretako herriak kezkatuta daude armen ugaritzeaz eta horrek sortzen dituen arri- s- kuez.

T X I N A

■ **Arrisku handia sortzen dute dikeek**
ADITU talde batek egindako azterketaren arabera, Txina- ko ibai eta aintziretako dike- en herenak gaizki daude, eta, ondorioz, dike horiek dauden inguruetako biztanleak arri- skuan bizi dira. Gutxi gora- behera, 85.000 dike daude herrialde osoan, eta, Ur Baliabideetarako Ministerio- ren arabera, 33.000 daude zahartuta edo gaizki eraiki- ta. Iazko uholdeetan milaka dike hondatu ziren.



SAYID AZIM / AP

Kenyan 32 lagun hil dira, tren bat bidetik atera ondoren.

Istripu larria izan zuen atzo Nairobi hiriburutik Mombasarako bidaia egi- ten duen trenak, eta, ezbe- harraren ondorioz, 32 per- tsona hil ziren eta beste asko zauritu. Hildakoeta- ko bost turista atzerri- r- rak dira. Trenean 645 bidaiari zihoazen, 300- entzako tokia bakarrik zuen arren, eta burdinbi- detik atera zen.